

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK II**

Mari eta Azeria

Mari eta Azeria

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

Gidaren azalpena:

HELBURUA:

Bideoan ikusitako istoriotik abiatuta, fikziozko testu narratibo bat (alegia bat) ekoiztea, irakurrizko antzezpen-saioa prestatzeko. Kanala: idatzizkoa. Eremua: literarioa/fikziozkoa. Hartzaila: haurrak eta gurasoak. Testua ekoizteko planifikazioko, testuratzeko eta gainbegiratzeko eragiketak egingo dira.

NARRAZIOARI BURUZKO KONTZEPTUAK:

Hartzaren ikuspegitik kontatuko da. Hau da, pertsonaien artean, objektuaren lekua betetzen duena da; izan ere, azeriaren biktima da.

BALIOAK: besteen asmoak kritikoki balioestea, besteen tresna ez bilakatzeko.

NARRAZIOA (fikzioa) :
Abenturazko kontakizunak;

NARRATZAILE-MOTA :
Narratzailea eta egilea ez dira pertsona bera. Hurrek istorio osoa ezagutzen dute, baina hartzak ez. Hartzak kontatuko digu nola pairatu zuen dena eta gertakariak nola erori zitzaizkion gainera.
Narratzaileak lehen pertsonan egingo du.

LEKUA :
Toki ideologikoa.
GAIAK, narrazioan, pertsonaiak dira. Kasu honetan, eta izaeraren arabera, subjektua eta objektua aztertzeke parada izango dugu: Subjektua = azeria. Objektua = hartza.

PLANIFIKAZIOA

EGITURA :
Hasiera :
Pertsonaia(k) izendatzea; Pertsonaia(k) fisikoki deskribatzea; Pertsonaia(k) psikikoki deskribatzea; Espazioan kokatzea; Denboran kokatzea;
Korapiloa:
Gertakariak: G.desorekatzaileak; Egoera-aldaketak;
Ebaluazioa.
Trama: kronologikoa, gertakariak gertatu ziren ordena berean.

POLIFONIA:

Zehar-estiloa: narratzaileak Azeriren eta Mariren hitzak aipatuko ditu, norenak diren azalduz.

TESTURATZEA**KOHERENTZIA:**

Inguruaren koherentzia:

Dekoratuak eta musika.

Intonazioa eta keinuak:

Enuntziatiboa; Harridurazkoa; Haserrea; Poza; Tristura; Beldurra; Misterioa; Iseka; Malenkonia; Erabakia; Euforia; Zalantza; Galdera; Ondorioa;

Izenen kohesioa:

Anafora nominala :

Ipuinaren laburpena ahoz egingo da, baina ezin dira honako izen hauek aipatu: Mari, Azeri edo Hartz. Horretarako, ordezkapen osoa edo erakusleak erabili beharko dituzte. Adjektibozko esaldiak erabiltzeko abagunea da.

Aditzen kohesioa:

Gertakari desorekatzaileak nabarmentzeko, aditzaren aspektua burutua erabiliko da narratzailearen sekuentzietan.

Aditz perifrastikoak: Nor(zer)-nork, indikatiboko orainaldia eta lehenaldia.

ANTOLATZAILEAK:

Begirada, puntuazioaren intonazioa: itxaronaldiak sortzeko, askaera iragartzeko...

Gairatzeko: Behin batean, Bazen behin...

Gertakari desorekatzaileak iragartzeko: Halako batean, une hartan, orduan, ...-nean.

Amaitzeko: Zorion entzun duenarentzat, zorion kontatu duenarentzat.

DEKLINABIDEA: Nork, Nori, Norengana (sg. eta pl.)

IDAZKETAREN ETA IRAKURKETAREN ESTRATEGIAK:

LEXIKOA:

Izenondoak: pertsonen izaera deskribatzeko: maltzurra, gezurtia, traidorea...

Aditzondoak eta adizlagunak, gertakarien zehaztapenak azaltzeko.

Jarduerak:

Honako gidoitxoak oinarritzat hartuta, hausnartu hurrekin amaieran azaltzen diren aldagaien inguruan.

HARTZA narratzaile moduan: (OFF) Kaixo, lagunok! Badakizue neguan animalia askok negu-loa egiten dutela. Bada, garai horretan, janaria lortzea oso zaila izaten da. Bada, negu batean, Azeri eta biok mendian genbiltzan janari bila. Biok tripa-zorriek jota geunden. Lo egiten saiatu ginen, baina goseak ez zigun uzten.

Azeria janari bila joan zen, eta Mariren lapikoa lapurtzea bururatu zitzaion, baina Mari konturatu egin zen eta, azeria Mariren kobazuloan sartu zenean, Mari joka hasi zitzaion.

MARI: Ospa! Alde! Oilaskoa nirea da. Utikan, lapur maltzur hori! Brrr!

AZERIA: Aiiii! Ai!!!! Ez!! Banoa!

AZERIA: Ene, a zer jenio txarra! Bete-bete eman ez dit ba! Ai! Hau bizimodu latza! Hau gosea! Brrrr...

HARTZA (narratzaile moduan): Marik ur bila joan beharra zuenez, Azeria poz-pezik zegoen.

AZERIA: Hau da zortea! Badoa iturrira! Hori, hori, alde hemendik! Orain bai!

HARTZA (narratzaile moduan): Marik azeriaren usaina nabaritu zuenez, tranpa bat prestatu zuen.

MARI: Azeri-usaina dago, ene! Eskarmentua eman beharko diot ba! Bestela, ez nau bakean utziko! Jan egin nahi duela? Ba, bapo jango du!

MARI: Kar-kar-kar... Tra-lara-lara... Ur gehiagoren bila noaaaa... (Ozenki)

AZERIA: (Barre) Zoaz, zoaz lasai! Nik zainduko dut lapikoa. Kar-kar!

HARTZA (narratzaile moduan): Azeriak lapikoari heldu zion, eta korrika eta presaka hanka egiten ahalegindu zen. Baina, behin kobazulotik irtenda, hantxe bertan sorpresa ederra hartu zuen.

AZERIA: (Barre) Ea, ea, ea... ea zer dagoen hemen... / E? / Uuuuuuuuu!! Aai, ai, ai, ai... Zer da hau? Zer gertatzen da? Ai, lapiko madarikatua! Aaaaaiiii!! Aaaaai! Aaaaaiiii! Mari sorgin halakoa! Ziria sartu dit, ondo sartu ere! Kaka zaharra! Gaizto hori!

MARI: Kar-kar-kar... Hori gainera! Zu lapurretan, eta gaiztoa neu!

MARI: Alde hemendik, edo oilasko bihurtuko zaitut!

HARTZA (narratzaile moduan): Orduan, Azeri niregana etorri zen laguntza bila, eta eskatu zidan Mariren lapikoa lapurtzen laguntzeko..

Hasieran, erokeria iruditu zitzaidan, baina, hain nengoen gose, ezen lagundu bainion. Izan ere, bapo bazkalduko genukela agindu zidan, eta nik sinetsi egin nion. Zergatik? Bi arrazoiengatik: lehena, goseak amorratzen nengoelako eta Azeriaren biraoen beldur nintzelako.

AZERIA: E, e, e, e... Ez da txantxa, etorri nirekin eta bapo bazkalduko dugu!

HARTZA: E... Ez nago txantxetarako, e? Indarrak galdu ditut.

AZERIA: Ba, aditu ondo: nik badakit non dagoen bazkari gozoa prest, lapiko bete-bete eta bero-beroan.

HARTZA: Azeri, ezagutzen zaitudala gero! Ez naiz atzo jaioa! E? Nolatan hain eskuzabal?

AZERIA: Pena eman didazu, aizu! Nolatan izango dizute beste animaliek errespetua, horrela ikusten bazaituzte?

HARTZA: E? Zer? Ja! Zu burutik jota zaude? Lamiari lapikoa ostea?

AZERIA: Bai.

HARTZA: Nahiago dut belarra jan! Ni ez noa zurekin.

HARTZA (narratzaile moduan): Baina, hain nintzen gose, azeriarekin joan nintzen; hori bai, erabat beldurtuta.

HARTZA: Ez dut indarrik. Ez dakit. Nik ezin dut korrika egin, Marik harrapatu egingo nau!

AZERIA: Ezetz ba! Ez ezazu halakorik pentsa. Baikorragoa izan behar da. Ene! Aaaaaii! A zer lotsa! Satorra ematen duzu kakalarri horrek!

HARTZA (narratzaile moduan): Eta konbentzitu ninduen. Mariren kobazuloaren aurrean orroka hasi nintzenan...

MARI: Aaaaai, zer uste dute hauek ba? Doazela pikutara! Kokoteraino naukate. Bizkarroi halakoak, beti lapurretan, brrr! Nik emango diet, baina ez uste dutena! (Barre)

HARTZA: Uuu! Uuu!

MARI: Zer duzu? Zergatik zabilta hemen orroka?

AZERIA: Hasi korrika, zoaz! Hartza, ez zaitez hor geratu, joan!

HARTZA: Uuu! Uuuu!

MARI: Mmm. Baina jakin daiteke zer nahi duzun? Zergatik ez zara beste edonora joaten, beste batzuk aspertzera?

HARTZA: (Beldurrez) Gose naiz.

MARI: Mmmmh, ulertzen dut. Eta nork esan dizu hemen janaria dagoela? Azerik?

HARTZA: Bai...

MARI: (Gozo) Ba... Tori, ogi-koskorak dira. Hartu eta jan! Kar-kar-kar!

HARTZA: Ai!!!! Ui! Ez bota! Kontuz!

MARI: Kar-kar-kar... Alde hemendik, petral hori! Kar-kar- kar...

HARTZA (narratzaile moduan): ...lamiek prestatu zuten janari guztia Azerik jan zuen.

Lamiek, bitartean, nire lepotik barre egiten jarraitzen zuten.

AZERIA: Bapo! Dena jan dut! Hartz gizajoa! Ez diot ezer utzi. Uumm... Badakit zer egin! Zer ideia ona! Kar-kar-kar...

AZERIA: Aaaaaii!, Aaaaaaiii!! Ai, min dut, min dut!

HARTZA: Ni banoa, basapiztia hori itzuli baino lehen.

AZERIA: Eta ni ere bai, ez pentsa. Kobazuloaren barruan, beste lamia batzuk zeuden, eta begira: kolpez ia garuna atera didate. Ezin naiz ibili. Eraman egin beharko nauzu!

HARTZA: Tira, ba... goazen...

HARTZA NARRATZAILE MODUAN: (Barre) Hara, azeria maltzurretan maltzurrena da. Ziria sartu digu, ondo sartu ere! Niri batez ere, ziria sartu zidan, sartu, azkenik lortu baitzuen bapo jatea eta zigorra nik jasotzea! Kar-kar-kar...! Hurrengoan ez dit ziria sartuko. Badakizue, zuhurra behin engaina daiteke, tontoa askotan. (Barre)

Testu hau erreferentzia bezala hartzen bada, testuaren azterketan oinarrituz, hizkuntzaz gaineko hausnarketa egitea proposatzen da. Hona hemen gai batzuk.

Alderdika edo aldagaika egin daiteke hausnarketa, edo lerroaldeka eta lerroalde bakoitzean dauden unitate linguistikoen zergatiaz/esanahiaz ohartarazi.

Ondoren, testuaren birformulazioa edo berridazketa egin daiteke. Haurren ekoizpenak lortzen saiatu edo ahalegindu behar dugu.

1. Hausnartu pluraleko 1. pertsonaren erabileraren zergatiaz. Nola izango zen Hartzaren izenean bakarrik egingo balu? Noiz ez du bien izenean hitz egiten?

2. Pertsonaiaren izena errepikatu ordeztatu, bilatu beste formula batzuk.

3. Aztertu umore txarra adierazteko moduak eta hausnartu horretaz. Hausnartu izenlagunen gradazioaz: maltzurretan maltzurrena, bizkarroi halakoak... Ekarri gogora beste forma batzuk.

4. Hausnartu zehar-estiloaz. Zein dira esan zituen hitzak? Narratzaileak nola adierazten du beste batek esan duena?

5. "Hori" hitzaren esanahiaz eta funtzioaz hausnartzeko aukera asko ditugu hemen:

Funtzio anaforikoa dauka zenbait kasutan; hau da, gaia mantentzen laguntzen digu. Beste batzuetan, berriz, izenlagunaren gradazioa edo maila adierazten du.

6. Aditzaren aspektua landu nahi bada, narrazioan oso aukera ona dago. Egoeraren eskribapena egiteko, aspektu ez-burutua erabiltzen da, eta, gertakari desorekatzaileak nabarmentzeko, denborazko edo aurkaritzako konektore bat erabiltzeaz gain, aspektu aldaketa egiten da.

Irakasleak alda ditzake enuntziatu horiek nahita, eta ikasleei galde diezaieke ea ados dauden esanahi berriekin.

7. Katafora: koherentzia lortzeko baliabidea dugu, anaforaren kontrakoa. Hemen, erreferentzia lehenago agertzen da: bi arrazoiengatik, lehena... bigarrena...

Gidoi literarioa:

Mari eta azeria

MARI: La-lara-laraaaa E? A, kaixo, aspaldiko! Gaur oso ipuin berezia kontatuko dizuet. Izan ere, maltzurkeriak eta aurpegi gogorra izateak zer ondorio ekartzen duten ikusiko duzue. Ni neu ere ahozabalik geratu nintzen (entzun nuenean).

MARI: (OFF) Behin batean negua ikaragarri hotza zen, eta animaliak goseak zeuden. Azeri eta Hartz mendian zebiltzan janari bila... Benetan negu latza zen. Ufa! Hura zen hotza!

HARTZA: E, epa! Zer moduz, Azeri?

AZERIA: Pss! Hainbestean, eta zu?

HARTZA: Goseak amorratzen, duela astebete ez dut-eta mokadurik jan! Tripa-zorriak ditut.

AZERIA: Animalia guztiak lotan daude euren gordeleketan. Hobe genuke guk ere gauza bera egitea.

HARTZA: Eeehm... Zuk uste?

AZERIA: Bai, lur jota nago, eta ahituta. Lo txiki bat egingo dut. Horrela, energia behintzat ez dut gastatuko.

HARTZA: Baina... tripa-zorriek ez digute begirik biltzen utziko.

AZERIA: Nahi duzuna. Baina ni lotara noa, ezin dut gehiago.

AZERIA: Nire ondoan etzan zaitetz, hala beroa emango diogu elkarri.

HARTZA: E? A! Bai, bai...

TXURIBELTZ: Uuuuuhm... Zer gozo dauden hosto hauek!

URDINA: Ea, ea ba... emaidazu apur bat...

HARTZA: (Orroa)

TXURIBELTZ\URDINA:

HARTZA: Janariaaa! / Nora joan da nire janariaa? Jan behar dut... jan behar dut... gose naiz...

A! Uste dut hortik joan direla... Aaaargh! Jan, jan... jan beharra dut...

URDINA: Eeeee! Eeeee! Ezetz harrapatu!

TXURIBELTZ: Kuku, kuku... Hemen nago! Kuku...

HARTZA: Baina... zer? Nola?

BEHIA: Harrapatzen banauzu, jan egingo nauzu! Mmm!

TXURIBELTZ: Ei! Begira zer gozo nagoen! Uou, uou!!

HARTZA: Nam!

AZERIA: E! Burutik jota zaude? E?

HARTZA: Zer? Ni? Eez...

AZERIA: Traidorea halakoa, lotan nagoela aprobe txatu nahi duzu ni jateko, e? Traidore zikina!

HARTZA: Amesgaiztoa izan da, uste nuen untxia zinela eta...

AZERIA: Zer uste duzu, tentela naizela ala? Lotan nengoela aprobe txatuz jan nahi ninduzun!

HARTZA: Ezetz ba, untxi bat harrapatu ...

AZERIA: Ja! Begiraidazu ondo! Untxi itxura al dut nik? E?

HARTZA: Ez, zoritxarrez ez. Untxiak itxura hobea zuen. A zer piura zurea!

AZERIA: Gainera hori! Hobe dut alde egitea, ergel honek nire onetik ateratzen nau, brr! /

(Ad Lib)

HARTZA: Oo! Baina... / Agur.

AZERIA: Eta non demontre aurkituko dut nik janaria orain? E? A! Goseak hiltzen nago!
Aaaargh! Brrr... Ene! Lamiaren kobazuloa da! Snif, snif... Aaaaa! Zer usain gozoa!! Uuuuuuhmm!
Ea ba... ea zer edo zer topatzen dudan...

MARI: ...Eta tipula. Honekin oso gozo geratuko da nire janaria. (Barre) / Tra-lara-laraaaa / Ea
ba... Hauxe...

AZERIA: /

MARI: Azeri! Irten zaitetz nire kobazulotik. Zoaz beste edonora lapurtzera, aditu?

MARI: Alde, alde... alde, alde!!

MARI: Alde hemendik, alproja hori!

AZERIA: Ez, ez... sentitzen dut... lagunduuuuu!!

MARI: Hemendik joateko esan dizut!

AZERIA: Aiiii! Ai!!!! Ez!! Banoa!

MARI: Ospa! Alde! Oilaskoa nirea da. Utikan lapur maltzur hori! Brrr!

AZERIA: Ene, a zer jenio txarra! Bete betean eman ez dit ba! Ai! Hau bizimodu latza! Hau
gosea! Brrrr... Ba, nola edo hala nik oilaskoa lapurtuko diot. Zer uste du Mari zikin horrek?
Grrr! Ziria sartuko diot, ondo sartu ere! Aaaa!!

MARI: Uuuuuhm! Bueno... Oso gutxi falta da janaria prest egoteko... jum! Ura ekarriko dut, beste
lamiak etorri baino lehen. Trialaraaaaa... la-lara-laraaaa... Uraren bila noaaa!

AZERIA: Hau da zortea! Badoa iturrira! Hori, hori, alde hemendik! Orain bai!

MARI: Tria-laraaa... Ui! Snif, snif..

AZERIA: Antzeman egin dit! Aiiii! Aiiii!

MARI: Azeri usaina dago, ene! Eskarmentu eman beharko diot ba, bestela ez nau bakean
utziko! Jan egin nahi duela? Ba bapo jango du lapur zikin horrek! Aaaa! Triala-rala-laaaa...

AZERIA: E? Baina... Zer...? Zer...? Kaka zaharra! Zertan dabil? Ni banoa! Ni banoa...

MARI: Tria-lara-lara... Uraren bila noaaa...

AZERIA: Ez nau ikusi... Ez nau ikusi! Eskerrak!! Je, je... Ufa! Zerbait ahaztu zaio: agian egur
gehiago bota behar zuen sutara. Je, je, je...

MARI: Kar, kar, kar... // Tra-lara-lara... Ur gehiagoren bila noaaa... (Ozenki) Iturrira noan
bitartean lapikoa hozten utziko dut, eta bueltan nire lagunekin jango dut!

AZERIA: (Barre) Zoaz, zoaz lasai! Nik zainduko dut lapikoa. Lasai! Je, je, je, je...
Kar, kar, kar...

MARI: Azeria oso azkarra zen, bai. Baina ez berak uste bezainbeste. Berehala abiatu zen nire
kobazulora, lapikoan ia prestatuta neukan janaria lapurtzeko asmoz.

AZERIA: Kar, kar, kar... A zer betekada hartu behar dudan gaur! (Barre)

MARI: Ez zuen bila ibili beharrik izan,... bertan baitzeukan jaki gozo hura.

AZERIA: Kar, kar, kar...

MARI: Zalantzarik egin gabe lapikoari heldu zion, eta korrika eta presaka hanka egiten
ahalegindu zen. Baina uste baino gehiago kostatu zitzaion.

AZERIA: (Barre) Astuna da gero! Oilasko galanta zen, inondik ere! je, je... A zer betekada
hartuko dudan! Umm! (Barre)

MARI: Eta hura hasiera baino ez zen izan. Zeren eta behin kobazulotik irtenda, hantxe
bertan sorpresa ederra hartu behar baitzuen azeri hark.

AZERIA: (Barre) Ea, ea, ea... ea z-zer dagoen hemen... / E? / Uuuuuuuuu!! Aai, ai, ai, ai.. Zer
da hau? Zer gertatzen da? Ai, lapiko madarikatua! Aaaaaiiii!! Aaaaaii! Aaaaaiiii! Mari sorgin
halakoa! Ziria sartu dit, ondo sartu ere! Kaka zaharra! Gaizto hori!

MARI: Kar, kar, kar... Hori gainera! Zu lapurretan, eta gaiztoa neu! Ja! A zer lotsagabea!

MARI: Alde hemendik edo oilasko bihurtuko zaitut!

AZERIA:

MARI: Ez duzu oilasko nahi?

MARI: Bada, oilasko eder bihurtuko zaitut! kar, kar, kar.

AZERIA: Ez, ez... ez esan hitz hori! Mari, erruki zaitez, baraurik nago eta! Ez dakit noiztik ez dudan ezer jaten! Ezin didazu ezer eman? Mesedez.

MARI: Ez! Daukadana nire laguntzat eta niretzat da. Ospa, eta ez zaitez berriro hurbildu! Alde hemendik! Agur, inozoa halakoa, eta ez itzuli!

MARI: (OFF) Hala ba, eskarmentu ederra hartu zuen azeriak. Eta goibel eta lur jota, hartza zegoen lekura itzuli zen.

HARTZA: Ai, nire eskua! Zelako mina daukadan!

MARI: Hura oraindik ametsetan zebilela-eta... azeriak esnatzea erabaki zuen.

AZERIA: Hartza, esnatu... Esnatu, hartza, esnatu...

AZERIA: Hori da piura! Horrek ere ez du aspaldian jan! A zer pare! Koitaduak gu!/ A zer lotsa! Mari oraindik nire lepotik barrez arituko da. Ene! Hau bizimodu zaila! Honek behintzat lo egiten du. Horrela ez da gosearekin oroitzen!

MARI: Halaxe zen, bai. Hartzak janariarekin amets egiten zuen.

TXURIBELTZ: Kar, kar, kar... Ezetz harrapatu! (Barre)

HARTZA: Korri, untxi madarikatu hori!

URDINA: Hartz tontolapikoa! Buuuuuh!! (Barre)

HARTZA: Harrapatuko zaituztet biok! / Ez didazue ihes egingo... Harrapatu eta jan egingo zaituztet... Jan egingo zaituztet, bai horixe!... Jan egingo zaituztet!

TXURIBELTZ: Hemen nago, hemen nago! Blebleble...

URDINA: Hartz tontolapikoa... Buuuuuh!!

HARTZA: Aaaaah! Zoratu egingo naiz, bai... Zoratu egingo naiz, zoratu!

AZERIA: E, e, e... Hartza! Esnatu, esnatu! Esna zaitez!

Bazkaltzera gonbidatzen zaitut!

HARTZA: E? Bazkaltzera? O! Amesgaiztoa izan da! Hau da zorigaitza, jatekorik ez eta lo egiterik ere ez! Zoratu egin behar dut! Lotan oso gustura nengoen. Orain tripa-zorriak dauzkat berriro! Ai, ai! Hau mina! Hau gosea! Au!!!!

AZERIA: E, e, e, e... Ez da txantxa, etorri nirekin eta bapo bazkalduko dugu!

HARTZA: E... Ez nago txantxetarako, e? Indarrak galdu ditut. Eta gainera untxikume nazkagarri horiek barregarri utzi naute. Majo egin dute barre nire kontura!

AZERIA: Ba aditu ondo: nik badakit non dagoen bazkari gozoa prest, lapiko bete-bete eta bero-beroan.

HARTZA: Azeri, ezagutzen zaitudala gero! Ez naiz atzo jaioa! E? Nolatan hain eskuzabal? Nondik erori zara?

AZERIA: Ba... Bazkaltzera nindoan, eta lur jota ikusi zaitudanez pena eman didazu. Benetan oso piura penagarria duzu!

HARTZA: Zer nahi duzu?

AZERIA: Baina, aizu, nolatan izango dizute beste animaliek errespetua, horrela ikusten bazaituzte?

HARTZA: Ja! Gainera hori, jatekorik ez eta irudia zaindu behar!

AZERIA: Ai, ene! Esker txarreko galanta eginda zaude. Ez duzu merezi. Baina ez dut aintzakotzat hartuko. Tira, zatoz nirekin bazkaltzera, eta ondoren egingo dugu untxikumeena. Indarrak berreskuratu ondoren, zulo handi bat egingo dugu eta zast! Bertan hil eta jango ditugu! Je, je...

HARTZA: Eta non da bazkari eder hori? Jakin al daiteke?

AZERIA: Jmm! Ez oso urrun, ehm... lekua ezagutuko duzu.

HARTZA: Nik dakidala hemen ez dago baserririk. Lamiaren kobazuloa eta mendia besterik ez.

AZERIA: Horixe bera, lamiaren kobazuloan da!

HARTZA: E? Zer? Ja! Zu burutik jota zaude? Lamiari lapikoa ostu?

AZERIA: Bai.

HARTZA: Nahiago dut belarra jan! Ni ez noa zurekin.
AZERIA: Baina, aizu...
HARTZA: Ez, ez eta ez... Ezta pentsatu ere! Jenio bizi-bizia du hark! Ez, ez eta ez!
AZERIA: Zuk atarian zarata egingo duzu eta bera ateratzen denean korrika joango zara.
Bitartean ni barrura sartuko naiz eta lapikoa kenduko diot.
HARTZA: Ja! Zergatik ez dugu alderantziz egiten? Harrapatzen banau, sorgindu egingo nau!
Ez, ez eta ez!
AZERIA: Eeehm... Harrapatzen bazaitu, esaiozu zauri bat egin duzula eta laguntza eske joan zarela. Ez du inoiz jakingo nork lapurtu dion! Je, jeeee...
HARTZA: Berdin dit. Zoaz zu korrika, eta nik lapurtuko diot lapikoa!
AZERIA: Mmmh... Nahi duzun bezala. Baina uste duzu indar nahikoa duzula gero lapikoarekin arineketan irteteko? Jum! Kobazuloan lapikoarekin harrapatzen bazaitu, zureak egin du. Zeuk aukeratu... nigatik hobe, niretzat arrisku gutxiago! Je, je...
HARTZA: Hmmmh...Ez dakit, jmm! Ez naiz fidatzen...
AZERIA: Bueno ba, ni banoa. Agur, esker txarreko hori... kakalarri halakoa! (Barre)
HARTZA: Bueno, bai, agur... agur...
AZERIA: Je! Eta ez esan gero ez dizudala gonbidatu, e? Je, je... Esker txarreko galanta!
HARTZA: E, e, itxaron! Banoa, banoa!
AZERIA: Kar, kar, kar...
HARTZA: E, itxaron, ai! / Itxaron, itxaron, mesedez... Itxarooooon!
HARTZA: Ez dut indarrik. Ez dakit. Nik ezin dut korrika egin, Marik harrapatu egingo nau!
AZERIA: Ezetz ba, ez ezazu halakorik pentsatu. Baikorragoa izan behar da. Ene! Aaaaaii! A zer lotsa! Satorra ematen duzu, kakalarri horrek!
HARTZA: Eta zer egingo diot ba? Makal-makal nago, erabat ahituta. Baina indartzen naizenean, ikusiko duzu. Pixka bat jatea besterik ez dut behar.
AZERIA: Pixka bat? Pixka bat? Egundokoa izango da: betekada, egundokoa! Juuumh...
Begira, begira... Zuk... orro egin ezazu ozenki. Eta Mari irteten denean, korrikan hasi. Bai?
HARTZA: Je! A zer erremedio! Bestela, berotu egingo nau!
AZERIA: Tira ba, hasi. Orain!
HARTZA: Grrrr, grrrrr, grrrrr...
AMAIA: Ui! Zer da hori?
MARI: Entzun. Hartzaren orroak dira. Mmm! Nire lapikoaren usainak erakarriko zuen. Gaur goizean azeria etorri da bi aldiz, eta badirudi orain hartza dabilela asmo berdintsuekin.
AMAIA: Ai, ai, aiiii...
MARI: Aaaaii, zer uste dute hauek ba? Doazela pikutara! Kokoteraino naukate. Bizkarroiak halakoak, beti lapurretan, brrr!
Nik emango diet, baina ez uste dutena! (Barre)
AMAIA: (Barre)
HARTZA: Uuu! Uuu!
MARI: Zer duzu? Zergatik zabilta hemen orroka?
AZERIA: Hasi korrika, zoaz! Hartza, ez zaitetz hor geratu, joan!
HARTZA: Uuu! Uuuu!
MARI: Mmmh. Baina jakin daiteke zer nahi duzun? Zergatik ez zara beste edonora joaten, beste batzuk aspertzera?
HARTZA: (Beldurrez) Gose naiz.
MARI: Mmmmh, ulertzen dut. Eta nork esan dizu hemen janaria dagoela? Azerik?
AMAYA: (Barre)
HARTZA: Ba...
AZERIA: (OFF) Ez zaitetz hor gelditu! Zoaz, zoaz azkar!
HARTZA: Bai, ...

MARI: (Gozo) Ba...

AMAIA: Tori, ogi-koskorrak dira. Hartu eta jan! Kar kar kar!

HARTZA: Ai!!!! Ui! Ez bota! Kontuz!

MARI: Kar, kar, kar... Alde hemendik, petral hori! Kar, kar, kar...

AMAIA: Kar, kar, kar...

MARI: Bazirudien azeriak nahi zuena lortu zuela. Eta behin kobazuloaren barruan bakar-bakarrik...

AZERIA: Orain bai. Nirea da. Kar, kar, kar...

MARI: ...lamiak prestatu genuen janari guztia jan zuen. // Jan zuen... eta jan zuen... lapikoa erabat hustu arte. / Gu, bitartean, eta ezertxo ere ez genekiela, hartz gizagaixoaren lepotik barre egiten jarraitzen genuen.

MARI: Ikusi duzu zer aurpegi jarri duen? (Barre)

AMAIA: Bai. (Barre)

AZERIA: Bapo! Dena jan dut! Hartz gizarajoa! Ez diot ezer utzi. Uummh... Badakit zer egin! Zer ideia ona! Kar, kar, kar...

AZERIA: Aaaaaii!, Aaaaaaiii!! Ai, min daukat, min daukat!

HARTZA: Ai! Eta nik ere bai! / Ai, ai! Banengoen ba ni, ai! Nori eta guri bururatu behar Mariren lapikoa lapurtzea! Aiiii!

HARTZA: Ni banoa, basapiztia hori itzuli baino lehen.

AZERIA: Eta ni ere bai, ez pentsa. Kobazuloaren barruan beste lamiak zeuden, eta begira: kolpez ia garuna atera didate. Ezin naiz ibili. Eraman egin beharko nauzu!

HARTZA: Tira, ba... goazen...

MARI: (Barre) Hara, azeria maltzurretan maltzurrena da, ikusi duzue? Hartz gizagaixoa! Ziria sartu dio, ondo sartu ere!

MARI: Niri ere ziria sartu zidan sartu, azkenik lortu baitzuen bapo jatea! Kar, kar, kar... Agur, onak izan eta hurrengora arte...! (Barre)

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea. El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**
Mikel Val

SOINU BANDA:
Inhar Val

EDIZIOA:
Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-12-16**

LEGE GORDAILUA: : SS-1031/04

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**